

Hasierako onesprena emateko proposamena Hiri izaerako bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzari egindako aldaketei.

**2023-01-30 EKO UDAL OSOKO
BILKURAREN ERABAKIA**

AURRENA.- Hiri izaerako bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzako 38. artikuluaren aldaketari hasierako onarpena ematea. (V. Titulua. Pasabideak eta aparkaleku en reserba bereziak)

Aldaketak egin ondoren, artikulua honela idatzita geratuko da:

- *Ibilgailuetarako gordelekuak edo garajeak gutxienez 3.500 kilotik beherako karga duten bost turismo edo furgoneta aparkatzeko lekua behar dute izan, edo karga handiagoko hiru kamioi sartzeko modukoak behar dute izan. Ibilgailu bakotzeko 25 m²-ko azalera erabilgarria eduki behar dute, eta kamioien kasuan, 40 m² (betiere bideak, irispideak e.a. kontuan hartuta.).*

Familia bakarreko etxebizitzei zerbitzua ematen dieten garajeen kasuan, gutxieneko edukieraren baldintza betetzetik salbuetsi ahal izango da.

Propuesta de modificación inicial de la Ordenanza Municipal Reguladora de los Usos, Tráfico, Circulación y Seguridad en las Vías Públicas de Carácter Urbano.

ACUERDO PLENO 30-01-2023

PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación del artículo 38 de la Ordenanza Municipal Reguladora de los Usos, Tráfico, Circulación y Seguridad en las Vías Públicas de Carácter Urbano. (Título V. Vados y reservas especiales de estacionamiento)

El artículo, tras la modificación, quedará con la siguiente redacción:

- *Guarderías de vehículos con una capacidad mínima de estacionamiento para cinco turismos o furgonetas de carga inferior a 3.500 kg., o tres camiones de carga superior, y dispongan de una superficie útil por vehículo de 25 m² o de 40 m² si se trata de camiones (incluyendo parte proporcional de viales, accesos, etc.).*

En el caso de garajes que den servicio a garajes unifamiliares se podrá eximir el cumplimiento del requisito de capacidad mínima.

Horrelako kasuetan emango den lizentzia erabilera iraunkorreko pasabidearena izango da.

La licencia a conceder en estos supuestos será la de vado de uso permanente.

- *Salbuespen gisa, pasabide-lizentziak eman ahal izango zaizkie 3.500 kg-tik beherako karga duten hiru auto edo furgoneta aparkatzeko gutxieneko edukiera izan eta gutxienez 75 m²-ko azalera erabilgarria duten lokalei (bideen, sarbideen eta abarren zati proporcionala barne), betiere, baldintza hauek betetzen baditzute:*
 - *Lokalaren azaleraren konfigurazioa ibilgailuak modu independentean sartu eta atera ahal izateko modukoa izango da; hau da, aparkatuta dauden beste ibilgailuetako bat mugitu beharrik gabe maniobratu ahal izango dute. Intentsitate txikiko bideen kasuan izan ezik, ibilgailu-fluxu txikiak bide publikoan maniobratzeko aukera ematen duen lekuetan, alegia. Horrelakoetan, Udaltzaingoak txostena egin beharko du, lokala pasabidea emateko egokia den ala ez adieraziz.*
 - *Automatikoki irekitzeko atea izan beharko dute, trafikoa ez oztopatzeko, eta kanpoko argi bat jarri beharko da, ibilgailuak sartu edo atera daitezkeela adierazteko.*
- *Excepcionalmente, se podrían conceder licencias de vado a los locales con una capacidad mínima de estacionamiento para tres turismos o furgonetas de carga inferior a 3.500 kg., y dispongan de una superficie útil de al menos 75 m² (incluyendo parte proporcional de viales, accesos, etc.); siempre que cumplan con los siguientes requisitos:*
 - *La configuración de la superficie del local deberá de permitir que los vehículos entren y salgan de manera independiente, es decir, que maniobren sin que sea necesario mover otro de los vehículos ya estacionados. Salvo en el caso de viales de baja intensidad, en donde el pequeño flujo de vehículos permita maniobrar en la vía pública, siempre con un informe preceptivo de la Policía Municipal que valore favorablemente la idoneidad del local para la concesión del vado.*
 - *Deberán de contar con puerta de apertura automática para no interferir en el tráfico, y se deberá de colocar una luz exterior de aviso que indique la posible entrada o salida de vehículos.*

- *Lokalak su-itzalgailuak izango ditu.*
- *Pasabideak ezin izango ditu 5 metro lineal baino gehiago izan edo, sarbidearen aurrean, ezingo du kendu eremu publikoan aparkatzeko plaza bat baino gehiago.*

Horrelako kasuetan emango den lizentzia erabilera iraunkorreko pasabidearena izango da.

- *Automobilaren sektoreko merkataritza-lokalak eta konponketa tailerrak, betiere jardunagatik ibilgailuak sartzen eta ateratzen ibiltzeko premia badago.*

Ordutegi jakin baterako pasabide-lizentzia emango zaie.

- *Industria- eta merkataritza-establezimenduak, gutxienez 100 m²-ko azalera izan eta, beren jardueragatik, ibilgailuen sarrera eta irteera edo zamalanak maiztasun handiarekin egin behar dituztenak.*

- *Aurrez adierazitako baldintza horiek bete ez arren, pisu handiko zamalanak egin behar izaten dituzten establezimenduek ere pasabidea eduki dezakete. Aurretik, zamalanak egiteko premia justifikatu behar dute eta zamalanak egiteko*

- *El local contará con dotación de extintores.*
- *El vado no podrá tener más de 5 metros lineales o eliminar más de una plaza de estacionamiento de la vía pública, frente al acceso.*

La licencia a conceder en estos supuestos será la de vado de uso permanente.

- *Talleres de reparación y locales comerciales del sector del automóvil, siempre que la actividad desarrollada exija necesariamente la entrada y salida de vehículos.*

Se les concederá licencia de vado sujeta a horario.

- *Establecimientos industriales y comerciales, con una superficie mínima de 100 m² cuya actividad precise de entrada y salida de vehículos o de operaciones de carga y descarga de especial frecuencia.*

- *También aquellos establecimientos en que sin cumplirse las condiciones anteriores deban efectuarse la carga y descarga de pesos importantes, previa justificación de la necesidad de tales operaciones y presentación de la*

erabiltzen dituzten tresnen edo aparatuuen zerrenda aurkeztu.

relación de aparatos de carga y descarga utilizados para dichas tareas.

- *Kasu bietan, Udalak aztertuko du pasabidea ematea komeni den ala ez, jardueraren ezaugarriak eta kokatuta dagoen lekuko trafikoaren egoera zein den ikusita.*

Pasabide-lizentzia emanez gero, pasabidea ordutegi mugatukoa izango da, salbu eta jarduera iraunkorra dela behar bezala justifikatzen bada.

Halaber, aldi baterako pasabidea eman daiteke ordutegi jakin baterako, eraikinak edo azpiegiturak eraikitzen edo birgaitzen ibili eta obrako ibilgailuak obra aldera sartu eta irten beharra dutenean.

- *Se valorará en ambos casos por parte municipal la conveniencia o no de la concesión en función de las características de la actividad y de la problemática del tráfico de la zona donde se ubique.*

Caso de concederse la licencia de vado, esta será de horario limitado, salvo cuando se justifique suficientemente que la actividad que justifica la concesión es de carácter permanente.

También podrá concederse licencia de vado temporal sujeta a horario en el caso de obras de rehabilitación o construcción de inmuebles o infraestructuras en las cuales sea necesario que vehículos de obra deban de acceder a la zona de obra.

BIGARRENA.- Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarkitaulan eta Udalaren webgunean iragarkiak jarriz, interesdunek erreklamazioak egin, eragozpenak jarri edo oharrok egin ahal izan ditzaten. Erreklamaziorik egiten ez bada, eragozpenik jartzen ez bada edo oharrik aurkezten ez bada, hasierako erabakia, automatikoki, behin betikotzat joko da.

SEGUNDO.- Someter el presente acuerdo a información pública por plazo de 30 días hábiles, mediante anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento y en su sitio web para que los interesados puedan formular reclamaciones, reparos u observaciones. En caso de no presentarse reclamaciones, reparos, ni observaciones, el acuerdo inicial se entenderá elevado automáticamente a definitivo.

HIRUGARRENA.- Erabakia eta Ordenantzaren testua Estatuko eta Autonomia Erkidegoko Administrazioei jakinaraz dakiela, onartu eta hurrengo sei eguneko epean, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 196.3 artikuluan xedatutakoa betez.

TERCERO.- Que el acuerdo y el texto de la Ordenanza se comuniquen a las Administraciones del Estado y de la Comunidad Autónoma dentro del plazo de los seis días siguientes a su aprobación, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 196.3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre.